



## ❖ UDALA Udal zerbitzuetako ordutegia

Alkatetzak jakinarazi duenez, Udala itxita izango da zenbait egunetan. Alkatetzak azaldu duenez, langileek urteko lan orduak betetzen dituzten neurrian, egutegian hainbat zubi eta jai egun hartzeko aukera izan dute urte bukaera honetan. Honakoa da beraz udal zerbitzuek izango duten ordutegia:

-Biteri eta liburutegia: abenduaren 24 eta 31n 10:00etatik 13:00etara irekita izango dira. 25etik 28ra eta urtarrilaren 1etik 6ra (aipatutako egunak barne) itxita izango dira.  
-Kirolegia: abenduaren 24,25,31 eta urtarrilak 1 itxita izango da.  
-Udala: abenduaren 24tik 28ra eta abenduaren 31tik urtarrilaren 6ra itxita izango da (aipatutako egunak barne). Zerbitzuak egun askotan itxiko dituztenez, Alkatetzak jakinarazi du, premiazko zerbitzuak duenak udaltzainak izango dituela eskura, egunean 24 orduz. ||

## ❖ GAZTE ASANBLADA Truke azoka gaur goizean Plazan

Truke azoka antolatu du Gazte Asanbladak gaurko. Herriarrak animatu dituzte gauzak eramatera. 11:00etatik 14:00etara, Plazan. ||

## ❖ ABESBATZAK Parrokiko koruaren emanaldia gaur

Parrokiko koruak Gabonen bueltako kontzertua emango du gaur Agustinetan. Entzutera joan nahi duenak atek zabalik izango ditu. 17:30etan hasita. ||

**Bihar ez da Hernaniko Kronikarik izango.**

## Buruntzaldeko pelota jaialdia izango da igandean, pelotari gazteen eta maila profesionaleko partiduekin

Goizean zehar Buruntzaldeko 6 herrietan pelota partidua jokatu dira. Arratsaldean profesional mailako pelota partidua izango da Hernaniko kiroldegian. Sarrerak salgai daude.

**BURUNTZALDEKO** Pelota jaialdia izango da igandean Buruntzaldeko sei herrietan (Usurbil, Lasarte, Andoain, Astigarraga, Urnieta eta Hernani). Jaialdia eskualdeko pelotariekin lanean ari den Buruntzape teknifikazio taldeak antolatu du; bertako koordinatzaileetako bat da Oier Mendizabal pelotaria. Jaialdia antolatzen ari dira, baita ere, sei herrietako udalak eta pelotari elkarteak.

Aurreneko aldia da maila honetako jaialdia antolatzen dela eta helburua da, Buruntzaldean pelotaren inguruan egiten den lanaren berri ematea jaialdiaren bidez, eta bidez batez, pelotaren inguruan egun atsegina pasatzea.

**Goizean pelotari gazteak** Jaialdiari hasiera sei herrietako pelotari gazteek emango diote, haien arteko pelota partidua jokatu baitira sei herrietan: Andoainen benjaminak, Lasarten alebinak, Usur-



Igandeko pelota jaialdiko antolatzaileak atzo prentsurrekoan.

bilan jubenilak, Urnietan seniorrak, Astigarragan kadetak eta Hernanin infantilak ariko dira. Guztira 500 bat pelotari ariko dira jokatu. Ondoren, animatzen dena, Otsuarena sagardotegian bazkalteko aukera izango du.

**Pelota partidu ikusgarriak** Arratsaldean edozein pelotari-

zale tentatzeko moduko partidua jokatu dira Hernaniko kiroldegian. Aurreneko partiduan Mendizabal-Argotek Saralegi-Oteizaren kontra jokatu dute. Bigarrenean, bi bitako gaur egungo txapeldunak, hau da, Aimar Olaizola eta Oier Mendizabalek jokatu dute, Bernaluze VIII-Belokiren kontra.

Arratsaldeko 17:00etan, Hernaniko kiroldegian.

**Sarrerak salgai** Jarri dituzte salgai larunbateko pelota partiduko sarrerak, Carrero, Oinddi eta Ibaizmendin: 30 eurotan pelota partidua eserita ikusi nahi dutenarentzat, eta 15 eurotan, zutik ikusteko. ||

## «Horra, horra, gure Olentzero....»

Olentzero ibiliko da gaur herrian barrena, eta jendea atzetik kantari. Baserriz baserri, Kaxkoan eta Zaharren Egoitzan barrena ibiliko da.

URTE osoan zain egon ondoren, azkenean gaur iritsiko da Olentzero Hernanira. Etxetan opariak utzi aurretik ordea, kantu saioa egitea gustatzen zaio ikazkiñari. Olentzerorekin batean kantatu nahi

duenak badu gaur aukera.

Alde batetik, herritar talde batek hitzordua egin du arratsaldeko 15:00etan Plazan, eta handik baserriz baserri ibiliko dira, Osiñaga eta Zikuñagan barrena.

Bestalde, Ttarla dantza taldeko kideak (guztira 200 bat lagun) arratsaldeko 18:00etan aterako dira Olentzerorekin, Urbieta kaletik, eta Kaxkoan barrena kale buelta egingo dute. Karrozak ere egin di-

tuzte, euskal mitologian girotutakoak. Kale buelta bukatzean, Plazan, Olentzerok haurrak agurtuko ditu. Aurretik, 16:00etan, Zaharren Egoitza bisitatuko dute. ||

**ARRI**  
taberna  
Pizzak eta Pasta freskoak  
Yola eta Jorgek  
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.  
Urte berri On!

NEGURO ORDUTEGIA:  
✓ Asteburu eguerditan zabalik  
✓ Egunero arratsaldean zabalik  
✓ Asteleheneroan itxita

Elxera eramateko prestatzen ditugu

943 33 34 37

Bidebieta plaza 2 (Antziola berrin)

**JON XABI**  
EGUTERRI OR II

Kale Nagusia, 7  
55 00 32  
HERNANI

**Mendi Lore**  
Zure lorazenda Hernanin

Mendi Lore-ko lagunok Eguberri zoriontsuak opa nahi dizkizuegu eta eskerrak eman gogun izandako konfiantzarenagatik.

Baita nik ere !!

Larramendi 5, HERNANI. Tel: 943 55 23 26.

**TELEFONAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 333288 ● DYA: 943 464622 Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103  
✚ FARMAZIAK ● GAUR: Egunez: Castilla Urbieta 7 - 943 552941 ● GAUEZ: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022  
✚ FARMAZIAK ● BIHAR: Egunez: Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● GAUEZ: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

## ❖ AEK

### Mariskada zozketa gaur

Urtero bezala, AEK mariskada zozketatuko du gaur. Zozketaren zerbakiak dituzten egutegiak saltzen ariko dira gaur, 12:00-14:00etara eta 18:00etatik aurrera, Plazan eta inguruetan. Zozketa 20:30-21:00ak bitartean izango da. ||

## ❖ BERTSOLATA

### Bertso jaialdirako eta bertso bazkarirako sarrerak

Bertsolataren barruan, bertso jaialdia izango da larunbatean Biterin. Andoni Egaña, Amets Arzallus, Igor Elorza, Sustrai Colina, Unai Gaztelumendi eta Xabier Legarreta izango dira bertsotan. Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago, Biterin, 6 eurotan. Jaialdia gaueko 22:30etan hasiko da. Bestalde, bertso bazkari musikatuak izango da urtarrilaren 3an eta Unai Iturriaga, Unai Agirre, Maialen Lujanbio eta Iker Osa izango dira kantari. Trama Enaut Agirrek jarriko du eta saioa musika-ekin girotuko dute Imanol Kamiok eta Aitor Atxegak. Bertso bazkarirako sarrerak salgai daude

dagoeneko, Aralar eta Tripontzi tabernetan, 25 euroren truke. Bertso bazkaria eguerdiko 14:00etan hasiko da, Errioguardan. ||

## ❖ MUSIKA

### DJ Talo eta Aritz Sound System gaur Apeadero tabernan

Gaur gauean DJ Talo eta Aritz Sound System Hernaniko musika jartzaileak izango dira Apeadero tabernan. ||

### ◆ ERREMONTA-Bi bitako txapelketa Ezkurra-Gaztelu eta Zeberio II-Agirrezabala gaur semifinaletako aurreneko partiduan

Bi bitako Tejados Aoiz txapelketa aurrera dioa, eta gaur jokatu da semifinaletako aurreneko partidua Galarretan. Bertan, Ezkurra-Gazteluk eta Zeberio II-Agirrezabalak jokatu dute. Semifinaletako lau jardunaldi jokatu dira printzipioz. Semifinala gaur jokatu diren lau partiduetatik bigarrena izango da. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da jaialdia. ||

**EGURALDIA**  
GAUR Eguraldia ez da aldatuko. Eguzki eta hotza izango dira nagusi. Goizean izotza botako du. Temperatura maximoak: 11 °C. Minimoak: 0 °C.  
BIHAR Goizean behe lainoa izango da. Eguerditik aurrera haizeak iparraldetik joko du eta itsasotik lainoak etorriko dira. Maximoak: 12 °C. Minimoak: 1°C. (euskalmet)

## ❖ INMACULADA IKASTETXEA

### Gabonetako erronda egingo dute gaur

Inmaculada ikastetxean opor aurretik ekingo da ugari ari dira egiten. Gaur Gabonetako erronda egingo dute, goizeko 11:00etan hasita. Kale buelta bukatzean ikasleekin jaiotza osatuko dute ikastetxean. ||

## ❖ SAN JOAN KONPARTSA

### Santo Tomasetako errifako zenbaki saritua

Larunbatean Santo Tomasetako jaialdia antolatu zuen San Joan Konpartsak Plaza Berrin. Errifak saltzen aritu ziren eta jakinarazi dute zenbaki saritua 471 izan dela. Zenbakia duenak boletan bertan agertzen den telefono zenbakira deitu behar du. Saria txerrikumea edo dirua izango da, aukeran. Saritua agertuko ez balitz ostiraleko ONCEko zenbakiarekin egingo litzateke berriro ere zozketa. ||

## ❖ GOIZ EGUZKI

### Bulegoa itxita

Goiz Eguzki jubilatuko bulegoa itxita izango da eta urtarrilaren 7an irekiko dute. ||

## ❖ SAN JOAN BATAIATZAILEA PARROKIA

### Igande eta jai egunetako mezak

Jakinarazi dutenez, abenduaren 25etik urtarrilaren 6ra bitartean, biak barne, ez da goizeko 08:00etako mezarik izango, igande eta jai egunetan, San Joan Bataiatzailearen parrokian. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



'Hernasax' saxofoi taldea eta Musika Eskolako abesbatza.


# Gabon aurreko egunak girotu dituzte herriko musikariek

GABONAK iritsi dira eta famili giroan pasatzekoak diren egun hauek girotzeko kontzertuak izan dira azken egunetan. Larunbatean, Hernani Musika Eskolako Abesbatza eta Hernasax taldearen emanaldia izan zen Milagrosan. Eraikina jendez bete zen musikari gazteen Gabonetako emanaldia ikusteko. Igandean, Txistulari Bandaren txanda izan zen, aurtan gonbidatu berezia izan dute gainera, Miren Zubillaga herriko pianojole gaztea. ||



Txistulari Banda Miren Zubillaga pianojolearekin.

**XABIER ZUGASTI ZUBILLAGA**  
JAUNA  
(Txantxangorriko bazkidea)

**TXANTXANGORRI  
ELKARTEA**

Hernanin, 2008ko abenduaren 24an

**IV. URTEURRENA**

**Joxe Igarriz Etxeberria**  
2004 / XII / 25  
(Marta Igarriz Euskal Preso Politikoaren aita)  
*Nahiz eta gure artetik urrutira joan,  
beti izango zaitugu bihotzean.*  
**Asko maite zaitugu. Etxekoak.**



Urteurreneko meza, **BIHAR, OSTEGUNA, goizeko 11:00etan**, Hernaniko **SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parrokian. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2008ko abenduaren 24an

## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensorea, 60m2 (249.000euro). Deitu: 671 124 594.  
Etxeko konponketak egiten dira: iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.  
BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).  
Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).  
Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.  
Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta berbrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76  
Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbrala, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)